

BALIO-PROPOSAMENA

Gure produktuak konpontzen duen arazo nagusia edarien hoztearekin lotuta dago. Ohiko egoeretan, edari hotzak mantentzeko izotzak erabiltzen dira, baina horrek arazo argi bat sortzen du: izotzak urtzean edaria urtu eta zaporea galtzen da. Gainera, askotan ez dago izotzik eskura edo deserosoa da etengabe erabiltzea. Gure aluminiozko pajitak, barruan harrizko artilea duelarik, arazo hori konpontzen du modu sinple baina eraginkorrean.

Pajita hozkailuan sartzen da erabili aurretik, eta aluminioak beroaren transmisio azkarra duelako, hotza ondo mantentzen du. Harrizko artileak, berriz, isolatzaile bezala jokatzen du, hotza barruan denbora gehiagoz mantenduz. Bezeroak edaria edatean, pajitak zuzenean edaria hozten du, izotzik erabili gabe eta edaria ez urtuz. Horrela, edariaren zaporea eta testura mantentzen dira.

Gure produktua lehiakideengandik bereizten duen elementu nagusia berritasuna da. Gaur egun merkatuan badaude altzairuzko edo aluminiozko pajita berrerabilgarriak, baina gehienek ez dute hozte-funtziorik. Gure kasuan, pajita ez da soilik ekologikoa, baizik eta funtzionala ere bada. Horrek bezeroari balio erantsi argia eskaintzen dio, eta horregatik egongo da prest produktu honengatik ordaintzeko.

Balioa bai kuantitatiboa bai kualitatiboa da. Alde batetik, izotzak ez erabiltzeak aurrezpen txiki bat dakar eta erosotasun handiagoa. Bestetik, diseinu modernoa, erabilerraztasuna eta berrerabilgarria izatea balio kualitatibo garrantzitsuak dira. Gainera, arriskuen murrizketa ere badago, ez baitago edaria gehiegi urtzeko edo zaporea galtzeko arriskurik.

Laburbilduz, gure balio-proposamena argia da: edariak modu eroso, garbi eta jasangarrian hoztea, zaporea aldatu gabe. Proiektuaren izaera berritzailea pajita baten erabilera tradizionala erabat aldatzean datza, funtzio berri bat emanez.